

[Berria.info](#) » [Papereko Edizioa](#) » [Plaza](#)

2012-04-21

«Uste dut estiloa badudala, eta estiloak salbatu egiten nauela»

Ramon Saizarbitoriak batez ere erruaren gaia landu du 'Martutene' lanean, bi bikotek eta beste lagun batek osatutako nobelan

Giza harremanak ardatz dituen lan mardula ondu du, bi ahots narratibo erabilita

GORKA EROSTARBE DONOSTIA

Ezohikotasuna bezain literarioa bada behintzat ohikotasuna. Baina ezohikotasunak erakartzen digu arreta errazago, jartzen dizkigu begi-belarriak erne aiseago.

Ohikotasunetik kanpoko zenbait gertaerak jantzi zuten atzo Donostian Ramon Saizarbitoriaren *Martutene* nobela berriaren (Erein) aurkezpen ekitaldia. Ohikotik kanpokoa da gurean, salbuespen gutxi batzuekin, liburu baten aurkezpenak bizpahiru kazetari eta oso gertuko jendearen arretaz haragoko oihartzunik eskuratzea. Atzokoan Donostiako hotel bateko areto ertain bat bete egin zen. Ohiz kanpokoa da, nahiz eta Iñaki Aldekoa Erein argitaletxeko editoreak esan bezala 1969an *Egunero hasten delako* plazaratzeaz geroztik «haren argitarapen gehienak mugarririk izan diren». *Kandinskyren tradizioa* (2003) gazteentzako nobela eta *Bi bihotz, hilobi bat* (2001) eleberria zituen orain arteko azken liburuak. Ia hamar urteko isiluneak ere areagotuko zuen ikusmina — nahiz eta *Ene Jesus*-etik (1982) *Hamaika Pauso*-ra (1995) isilune nabarmenagoa egin—, eta bultzatuko zuen, idazleak berak esan bezala, aurkezpena «zeremonia laiko» bihurtzera.



Ramon Saizarbitoria, atzo Donostian, *Martutene* nobela berriaren aurkezpena egin aurretik. / GORKA RUBIO / ARGAZKI PRESS

Ohiz kanpokoa da, halatsu, liburu berri bat aurkezteko beste idazle baten (adiskide izan edo ez izan) laguntza izatea ez, baina bai harekin dialektika bat sortzea gai baten inguruan. Atzokoan sortu zen egilearen eta Markos Zapiain idazle eta kritikariaren artean. Dialektika baketsua. Zapiainen iritzian, gai garrantzitsuenaren jelsiarena du *Martutene*-k: «Emakumearen jelsiaren ikerketa sakon bat da liburu». Baina, nahiz eta liburu plazaratu aurretik egileak berak eta beste zenbait asko aipatu izan duten erruaren gaia, Zapiainek «azpisail» modura kokatuko luke: «Errua baino deigarriagoa egiten da, aurreko nobelak kontutan hartuta, errugabetezko ahalegina. Hori, orain artean ez da egon, eta ahalegin hori lotua dago patuaren onarpen lasaigo bati».

Liburuan euskaldun ez den pertsonaiak, alegia, Max Frischen eleberri bateko protagonistaren izena duen Lynn soziologo estatubatuar irudikatzen du patuaren onarpen lasai hori. Patuaren onarpen lasaigo bat ere lagun izan du Saizarbitoriak ia 800 orrialde dituen nobela ontzeko. «Ez dut izan ia ezeren beldurrik. Libre sentitu naiz. Gero eta gauza gutxiago dut gaitzeko. Zahartzaroak baditu gauza onak...».

Saizarbitoriak ez du ukatzen jelsiaren gaia jorratu duenik, baina bigarren maila batean kokatu du. «Jelsiarena lehendik zectorren gaia da, eta erruarena, berriz, berriagoa da. Nire iritzian, presentzia handiagoa du nobelaren garatzean. Erruaren gaia gehiago landu dut. Baina, egia da nobela batean nahi gabe ere esaten direla gauzak. Eta hor dago kritikaria gauza horiek zein diren esateko».

Zapiainen iritzian, «betiko gaiak» jorratzen ditu Saizarbitoriak lan berrian, «baina ikuspuntu berri batetik, eta, beharbada, ez orain artekoetan bezain modu ilunean. Bizitzaren aldeko aldarria dago, eta hori bada berritasuna». Halere, nobelaren puntu ilunen artean maitasun harremanak nabarmenduko lituzke Zapiainek. Eta maitasun kontuen artean, batez ere, jelsia kontuak. «Emakumearen jelsiaren ikerketa sakon bat da liburu, eta kontrakotasun bat gizonaren jelsia sentimenduekin. Jelsiak gizoni eragiten diena da amorrua, etsipena... Emakumeek aldiz, gaitasun handiagoa dute barkatzeko eta orainaren mesedetan ardurak hartzeko».

Max Frischi omenaldia

Albisterik...

IRAKURRENAK

Bozkatuenak

Bidalienak

- 1 Espainiako eta Frantziako estatuen indarkeriaren biktimek denentzat "ordaina eta onarpena berdina" izatea eskatu dute
- 2 Eusko Legebiltzarreko bakerako lantaldeak ez du presidenterik izango
- 3 Suu Kyik Myanmaroko Konstituzioa "errespetatu" egingo du, baina ez dio "babesa" emango
- 4 Siriako Gobernuak herrialde arabiarrei eta Mendebaldeari leporatu die bakerako plana zapuztu nahi dutela
- 5 Europako Ligako finalerako sarrerak eskatzeko epea, gaurtik zabalik

Ez da debaldekoa pertsonaietako batek Max Frischi egitea erreferentzia. Idazle suitzarraren itzala saihestu ezinekoa baita nobela guztian, izenburutik beretik hasita. Frischen *Montauk* nobelak leku izen bat du izenburuztat, *Martutene*-k duen bezala. Azken maitasun istorio bat kontatzeko aitzakiarekin, bere bizitzaren gainbegiratze bat egiten du Frischi bere nobelan. Saizarbitoriak ere atzera begiratzen du berean, bere paisaiak dakartza gogora, Donostia «ederrago» baten nostalgia, aro baten amaiera... Nobelan istorio asko kontatzen dira, baina pertsonaiek daukate berezko nortasuna eta indarra, beren harremanekin eta beren afektuekin. Bi kontaketa batzen ditu bakarrean: Iñaki Abaitua ginekologoak egindakoa kapitulu bakoitietan; Julia itzultzaileak egindakoa bikoitietan. Pertsonaia batzuk, ordea, bi kontaketatik ageri dira; Martin izeneko idazlea —hark ere Frischen nobelako pertsonaia batek bezala abizenik ez duena— adibidez.



Narratzaileetako bat emakume izateak ez dio arazorik eragin Saizarbitoriari: «Naturala iruditzen zait. Ez zait hain zaila iruditzen. Beste kontu bat da nola egiten dudana». Emakumezkoaren ahotsa, Juliarena, «askoz ere interesgarriagoa» zaio gainera: «Emakumea denez, gehiago arduratzen da besteez, eta datu gehiago ematen ditu bere inguruneaz. Abaitua autistagoa da. Bere arazo eta gauzetan zentratzen da gehiago. Hori ondo zetorkidan. Ez nion ahotsik eman nahi idazleari. Nahiago nuen emakume baten ikuspegia».

Liburuaren ardatz giza harremanak, maitasun kontuak, jelsiak, erruduntasunak eta beste izanik, liburuak «badu melodramatik», Saizarbitoriaren hitzetan. Eta melodramatik izateak «badu arriskurik», baina estiloak salbatu duela iritzi dio. Umorez eta ironia zantzuz egin zuen bere aurkezpena idazleak, eta honako hau esan zuen estiloaren inguruan: «Sinetsi nahi dut estiloak salbatu egiten nauela. Eta esango dizuet hau *off the record*: uste dut estiloa badudala eta estiloak salbatu egiten nauela. Estiloak salbatu egiten dituela pertsonaia». Seguru-seguru gauza batez dago: «Fede onez idatzitako liburua da». Eta gainera sinetsita dago ez dela liburu aspergarria. «Uste dut badagoela tentsio narratibo bat, narratze teknika bat, laguntzen duena irakurlea liburuaren bukaeraraino hel dadin».

Eskerrak eta barkamena

Ohikoa izaten da da liburuaren aurkezpenetan esker onei tarte bat eskaintzea. Ez da hain ohikoa, ordea, idazle *handi* izendatuen artean esker oneko hitzak izatea. Saizarbitoriak jende asko eskertu zuen atzo, Iñaki Aldekoa editorea, Josu Landa, Patri Urkizu eta eta Mariasun Landa idazleak, besteak beste. Baina, esker berezia adierazi zuen Koldo Izagirrerekiko: «Berak ez zuen azaldu nahi liburuan. Baina nik ez nuen bere lana aipatzeko utzi nahi. Nahi nuen jendeak jakitea nola lagundu didan. Askok lagundu dit. Harreman fuertea izan dugu azken hiru hilabeteetan. Proposamen asko egin dizkit, eta ez normalean zuzentzaileak egiten duen bezala... baizik eta argudiatuz, askotan folio luzeetan. Ez dizkiot guztiak onartu, zeren bestela ez nintzen neu izango. Hori ez du gaizki hartu. Pozik nago, harro ez esateko, elkarrenganako errespetu handiarekin egin dugu lana. Elkarlana egiteko nostalgiarekin geratzen naiz».

Ezohikoa dena, halaber, liburua aurkeztu berritan barkamen eskaera bat egitea da. Pertsonaia eraikitzeko «erabili izanagatik» barkamena eskatu zien izendatu ez zituen hainbat pertsonari: «Erabili egin ditudalako. Okerrena da, gainera, ez ditudala erabiltzen erretratu bat egiteko. Hori, beharbada, jendeak onartuko luke... egiten duguna da jendea erabili beste zerbait sortzeko, Frankenstein moduan...».

Hasiera | Euskal Herria | Ekonomia | Mundua | Kirola | Kultura | BerriaTB | Parte Hartu | Blogak | Bereziak | Paperekoa |  

© Berria.info - Euskal Editorea S.L.
Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain 20140
Telefonoa: 943 304 030 / Faxa: 943 590 172
berria@berria.info - www.berria.info
Lege Informazioa



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa